



Herritarren ekimenak garatzeko plataforma

[Lan irekia](#) gizartean eragina duten eta ICTak erabiltzen dituzten herritarren ekimenak garatzeko plataforma bat da. **Euskal gizartean martxan dagoen, teknologiak** erabiltzen dituen eta guztion ongizaterako aukera berriak eskaintzen dituen **edozein proiektuk** parte har dezake plataforma horretan.

Lan irekia [4.0 Herritarrak](#) prozesuan oinarrituta dago, [Ideas for Change](#)ren proiektu bat da, eta Javi Creusen zuzendaritzapean, Katalunian 2011n jarri zen martxan. Ekimenak gizarte- eta enpresa-eragileak bateratuz **berrikuntza sustatzeari** dagokionez lortu dituen emaitzak ikusirik, aurtan Euskadira ekarri dugu, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Prozesua ekainaren 16an aurkeztu zen, larunbatez, [ZAWP Zorrozaurren](#), eta herritarren **berrikuntza-ahalmena**, orientatzaileen **esperientzia eta ezagutza, enpresen eta erakundeen** babesa eta zerbitzuen hornitzaileen **lankidetz**a barne hartzen ditu.

Prozesu **gardena, irekia eta ez-lehiakorra** da, eta bere metodologia honela laburbiltzen da:

1. *Euskal gizartean martxan dauden herritar-ekimenak **identifikatzea**, mapa bat egiteko eta beren garapen-beharrak analizatzeko.*

Proiektuaren testuinguru digitalaren eta sozialaren lehenengo azterketa batean, erakarri nahi diren tipologia eta ezaugarriekin bat datozen ekimenak identifikatzen eta indexatzen dira. Hau da, ICTak intentsiboki edo maila esanguratsuan erabiltzen dituzten eta sarean presentzia duten ekimen azpimarragarriak, edo, bestela, Interneteko beste leku batzuetan erreferentzia nahikoa dutenak (foroak, diskurtso-zerrenda irekiak, *blogroll*ak).

Ekimenek plataforman izena ematen duten heinean, **mapa dinamiko** bat egiten da, infografia gisa, eta, bertan, ekimenak teknologiaren erabileraren, gaiaren eta esparru geografikoaren arabera antolatzen dira. Euskadin, momentuz, ez dago horrelako maparik.

2. Herritar-ekimena hiru lan-saiotan aholkularitza boluntarioa eskainiko dion orientatzaile batekin *konektatzea*.

Ekimen bakoitzaren behar zehatzak identifikatu eta sailkatu ondoren, informazioa orientatzaile posibleen datu-basearekin alderatzen da, beharra-ezagutza harreman egokia lortzen saiatzeko. Konexio horrek ziurtatu behar du ekimen bakoitzak aholkularitza pertsonalizatua jasotzen duela orientazio-prozesuan, baita orientatzaile bakoitzak bere intereseko ekimen batekin lan egin duela ere. Harremanetan jarri ondoren, orientatzaile bakoitzak:

- Xeheki **analizatzen** ditu ekimenaren beharrak, **orientazio estrategikoa** eskaintzen du eta **ezagutza praktikoak transferitzen** ditu denboran zehar iraungo duen garapena lortzeko.
- Ekimenari bere **harreman-esparrua irekitzen** laguntzen dio, bai erabiltzaile mailan, bai beste publiko batzuen arteko ikusgarritasunaren mailan ere.
- **Antzeko ekimenak eta babes posibleak** bilatzen ditu, eta hausnarketa pertsonal bat egiten du azken aurkezpenerako.

1. *Tranpolin saio bat* **antolatzea** ekimenen sustatzaileen eta enpresa-eta erakunde-esparruko kontaktuen arteko topaketa pertsonalizatuekin.

Networking jardunaldi irekia antolatzen da partaide guztientzat, herritar-ekimenik azpimarragarrienei **beren proiektuak aurkezteko** aukera emateko, enpresa eta erakundeetako profesionalekin eta ordezkariekin elkartzeko eta horrela oihartzun eta harreman-gaitasun handiagoa izateko esparru garrantzitsuetan.

Networking topaketa pertsonalizatuak antolatu eta gonbidatzeko, ordutegi gurutzatuen matrize bat sortu da, eta, horren bidez, elkarriketa laburrak esleitzen dira, bi aldeek arteko akordioaren bidez.

4.0 Herritarren topaketan 225 pertsonak parte hartu zuten, eta horien %53 enpresen edo/eta erakundeen ordezkariak eta %40 hainbat herritar-ekimenetako kideak ziren.

2. *Prozesuaren emaitzak* **ezagutzera ematea eta argitaratzea**

Konklusioen txostena egin ondoren, lortutako emaitzetan oinarrituta, Lan Irekiaren kanalen bidez ezagutzera ematen eta argitaratzen dira (web orria, Bloga, Facebookeko orria eta Twitter-eko profila), baita kanpoko komunikabideen bidez ere.

ONURAK

EKIMENENTZAT

1. **Oihartzuna.** jardueraren oihartzuna areagotzea Lan Irekia plataformaren bitartez, bere kanal guztiekin eta Euskadiko herritar-ekimenen maparekin.

2. **Baliabideak.** Antzeko helburuak edo/eta jarduera-esparruak dituzten ekimenekiko ahalmenak koordinatzea eta enpresa- edo/eta erakunde-babesak lortzea.
3. **Proiektzioa.** Aholku aditua jasotzea orientatzaileen bidez eta zerbitzuen hornitzaileek proposatutako jardueretan parte hartzea.

ORIENTATZAILEENTZAT

1. Bere intereseko herritar-ekimen bat garatzen **laguntzea**
2. **Lehen eskutik** izatea gizarte berrikuntzari buruzko **informazioa**.
3. Interesak konpartitzen dituzten profesional boluntario batzuekin **harremanetan jartzea**.

ERAKUNDE ETA INSTITUZIOENTZAT

1. Berrikuntzaren bideak irekiko dizkieten eta benetako beharrei eta IKTen erabilera sozialei erantzuten dieten herritar-ekimenekin **lankidetzan aritzeko aukerak**.
2. Bere **berrikuntza-agenda hobetzea** edo osatzea.

ZERBITZUEN hornitzaileentzat

1. Antolatzen dituzten **jardueren** eta eskaintzen dituzten zerbitzuen **oihartzuna areagotzea**.
2. Herritarren ekimenen harreman estuagoa eta ulergarritasuna sustatzea eta, horrela, **bere eskaintzaren programazioa berregitea**.

Parte hartzeko mekanismoa erraza da, www.lanirekia.org web orrian izena eman behar da, ekimen, orientatzaile, enpresa edo zerbitzu-hornitzaile gisa.

Era berean, Lan Irekiaren taldearekin harremanetan jar daiteke coordinación@lanirekia.org emailaren bidez, [@lanirekia](https://twitter.com/lanirekia) Twitter-en bidez edo Facebookeko www.facebook.com/lanirekia orriaren bidez.

Gaur egun, plataforman hainbat ekimenek eman dute izena, adibidez, [Innkultura](#) proiektu kulturalak garatzeko lankidetzaren sarea, [Espacio Open](#) laneko plataforma, [Identibuzz](#) kultura anitzeko komunikazio-programa, [Llévame al huerto](#) balkoietan eta terrazetan landatzeko ikus-entzunezko programa nahiz [Truecasa](#) etxeak trukatzeko sarea, Gasteizko Denboraren Bankuak sustatua.

Arantxa Sainz de Murieta Sainz

Coordinadora Lan Irekia Koordinatzailea

coordinacion@lanirekia.org

658731310

www.lanirekia.org

[@lanirekia](https://twitter.com/lanirekia)

www.facebook.com/lanirekia